



## TOPAKETAK: PARTE HARTZEKO OINARRIAK

### Topaketak antolatzen dituen erakundea

Irekia (Gobernu Irekia) arduratzen da topaketak antolatzeaz eta egiteaz. Irekiaren helburua da Eusko Jaurlaritzaren jarduerari buruz informazioa ematea, herritarrek modu aktiboan eta irekian parte har dezaten.

### Topaketak

Topaketaren faseak **Irekia-Gobernu Irekiaren webgunean** garatzen dira.

### Helburua

Topaketen helburua da **Administrazioaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren arteko topagune bat eskaintzea**. Topaketa digital horien bidez, zeinetan Eusko Jaurlaritzako Gobernu Irekiaren taldeak parte hartzen duen, **gizarteak egindako galdera eta kontsulta guztiei erantzun nahi zaie**.

### Datak eta faseak

Topaketak fase eta data hauek ditu:

- Lehenik, Irekia – Gobernu Irekiaren web-atariaren bidez egindako galderak jaso: **2021eko urriaren 5etik 12ra**.
- Irekia-Gobernu Irekiaren web-atarian galderen gaineko bozketa egin: **2021eko urriaren 13tik eta 18ra bitartean**
- Bozketa itxi eta Topaketan erantzungo zaien 20 galderak hautatu: **2021eko urriaren 19tik 20ra bitartean**.
- Ondorioen fasean, herritarrek gehien baloratzen dituzten 20 galderen aukeraketa argitaratzea: **2021eko urriaren 22a**.
- Topaketa YouTubeko kanalaren, Facebook-eko orriaren eta Irekia – Gobernu Irekiaren webgunearen bidez eman: **2021eko urriaren 25a**.
- Topaketa transkribatu eta Gobernu Irekiaren webgunean argitaratu (testua, audioa eta bideoa): **2021eko urriaren 26a**.
- Topaketarako hautatu ez diren galderen erantzunak Gobernu Irekiaren webgunean argitaratu: **2021eko urriaren 29a**.

## **Parte-hartzea**

### **1. Nola parte hartzen den galderen fasean:**

- Irekia-Gobernu Irekiaren webgunean kontu bat sortu behar da, formularioa betez, sare sozialen bidez konektatuz edo saioa hasiz, aldeztatik sortutako kontu bat izanez gero (posta elektronikoa eta sartzeko pasahitza). Urrats hori egitea nahitaezkoa da galderen fasean eta bozketaren fasean.
- Gobernu Irekiak proposatutako gai-blokeak kontuan hartuta egin behar dira galderak.
- Galderak egin ondoren, moderatze- eta baliozkotze-zerrenda batera pasako dira, onartu baino lehen, eta Gobernu Irekiaren webgunean argitaratuko dira, ondoren bozketa egiteko.

### **2. Nola parte hartzen den bozketaren fasean:**

- Irekia-Gobernu Irekiaren webgunean kontu bat sortu behar da, formularioa betez, sare sozialen bidez konektatuz edo saioa hasiz, aldeztatik sortutako kontu bat izanez gero (posta elektronikoa eta sartzeko pasahitza). Urrats hori egitea nahitaezkoa da galderen fasean eta bozketaren fasean.
- Gai-multzo bakoitzaren barruan interesgarrientzat edo garrantzitsuentzat jotzen dituzun galderen aldeko botoa eman (bakarra ere izan daiteke).
- Gai-multzo bakoitzeko galdera bakarraren alde eman daiteke botoa.
- Posta elektronikoa bat bidali behar da, emandako botoa baieztatzeko.

## **Baldintzak eta betekizunak**

### **1. Parte-hartzaileak:**

Edozein herritarrek parte hartu ahal izango du topaketetan (galderen zein bozketaren fasean). Horretarako, beharrezkoa da Irekiaren webgunean erregistratzea, kontu bat sortuz, edo Facebooken edo Twitterren bidez erregistratzea.

### **2. Galderak bidaltzeko baldintzak:**

- Erregistra zaitez Irekiaren webgunean kontu bat sortuz, edo, bestela, Facebooken edo Twitterren bidez.
- Izena emanda zein izena eman barik parte har daiteke. Galderak anonimoki argitaratzeko, "Anonimoki parte hartu" laukia aktibatu behar da. (Irekiak beti jakingo du zein den parte hartzen duena).
- Gehienez ere, galdera bat egin daiteke proposatutako gai bakoitzeko. Ez da beharrezkoa galdera batekin parte hartzea gai guztietan; posible da galdera bakar batean egitea eta egun desberdinetan egitea, gai-multzo bakoitzeko galdera bat osatu arte.
- "Beste gai batzuk" atalean, proposatutako gai-multzoekin lotuta ez dauden galderak sar daitezke.

- Galderak euskaraz edo gaztelaniaz bidal daitezke.
- Irekiak badu iruzkinak moderatzeko sistema bat, [erabilera-baldintzak](#) urratzen dituzten iruzkinak/edukiak ez argitaratzeko. Hori dela eta, egindako galderak ez dira jendaurrean jarriko onartuak izan arte.

### 3. Bozketak bidaltzeko baldintzak:

- Erregistra zaitez Irekiaren webgunean kontu bat sortuz, edo, bestela, Facebooken edo Twitterren bidez.
- Gehienez ere, proposatutako gai bakoitzeko boto bat emanda parte har daiteke. Ez da beharrezkoa gai guztietan boto bat emanda arte hartzea; posible da bakar batean parte hartzea eta zenbait egunetan egitea, gai-multzo bakoitzeko boto bat osatu arte.
- Botoa aldatzeko aukera ere badago. Horretarako, galdera berria baino ez da bozkatu behar, eta aurreko bozketa berez geratuko da hautaketatik kanpo, eta boto berria jasota.

### 4. Ondorioen fasean galderak hautatzea

- Topaketarako 20 galdera bozkatuenak hautatuko dira. Horretarako, gai-multzo bakoitzean boto gehien lortu dituzten 4 galderak hartuko dira kontuan.
- Galdera batek, hautatua izateko, gutxienez boto bat izan behar du.
- Gai-multzo baten barruan ez badago aurreko baldintza betetzen duen behar adina galdera, boto gehien dituzten galderak hautatuko dira.
- Gai berean boto gehien jaso dituzten galderetako batzuk antzekoak badira, boto gehien jaso duena hautatuko da.
- Topaketarako hautatu ez diren gainerako galderak Irekiaren webgunean erantzun eta argitaratuko dira, Topaketa egin eta gero.

### 5. Baldintza orokorrak

- Irekia – Gobernu Irekitik gogorazi behar diegu parte hartzen duten herritar guztiei errespetuz jokatu behar dutela gainerako erabiltzaileekin, erakundeekin, enprekin edo pertsona publikoekin komunikatzerakoan.
- Izan ere, Irekia – Gobernu Irekiak agresibotzat edo iraingarritzat jotzen duen edozein galdera ez da kontuan hartuko eta ez da argitaratuko, ezta Irekia – Gobernu Irekiak [erabiltzeko baldintzak](#) urratzen dituzten iruzkinak/edukiak ere.
- Topaketekin zerikusirik ez duten galdera guztiak ere ez dira argitaratuko.
- Irekia – Gobernu Irekiak badu iruzkinak moderatzeko sistema bat, web-ataria erabiltzeko baldintzak urratzen dituzten iruzkinak/edukiak ez argitaratzeko.
- Gobernu Irekiaren Zuzendaritzaren ulertuko du adingabe bat atarian sartzen den unetik, harern gurasoen, tutorearen edo legezko ordezkariaren baimena duelako seinale dela.

## **Jaulkipena**

Topaketa 2021eko **urriaren 25ean** emango da, YouTubeko kanalaren, Facebookeko orriaren eta Irekia – Gobernu Irekiaren webgunearen bidez, eta 45 minututik ordubetera bitarte iraungo du.

## **Datu pertsonalak**

Gobernu Irekiaren Zuzendaritzak datu pertsonalak babesteari buruzko araudia betetzen dela bermatzen du, eta, horretarako, [pribatutasun-politika](#) bat garatu du. Politika horretan, datu pertsonalak tratatzeko baimena eskatzen da, eta honako hauen berri ematen da: helburuak, biltzen diren datuen tipologia, dituen eskubideak eta Gobernu Irekiaren Zuzendaritzaren eta Datuak Babesteko Ordezkariaren harremanetarako informazioa.

Era berean, erantzukizun proaktiboaren, diseinuko pribatutasunaren eta, besterik adierazi ezean, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean jasotako gainerako printzipioen premisari jarraikiz, Irekia atariak neurri tekniko eta antolakuntza-neurri egokiak aplikatu ditu segurtasun-maila egokia bermatzeko. Hala ere, erabiltzaileak jakin behar du interneteko segurtasun-neurriak ez direla saihestezinak.